

Txangoa arriskuen gaztelura





Argitaraldia: 1.a 2007ko irailean
Ale-kopurua: 1.000 ale
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Industria, Merkataritza eta Turismo Salla
Internet: www.euskadi.net
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Egilea: Ortzadar, S.L.
Aurreinprimaketa: Argia Servicios Gráficos, S. L.
Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S. A.
ISBN: 978-84-457-2607-5
Lege-gordailua: VI-392/07



“Yupiiii! Bihar arriskuen  ra goaz”, esan du Kontxik pozez zoratzen.

“Yupiiii”, erantzun du Tontxuk, pozaren pozez jauzika.

“Gora aita! Gora ama!”.


Bat-batean Tontxuk laban egin du, eta oihu bat iritsi da sukaldetik: “Plasta! Aii!”

Lurra irristakor egon da, eta Tontxu gaixoak kaskarreko itzela hartu du.

“Ez zara konturatu zorua oraintxe bertan garbitu dudala ala?”, galdetu dio aitak, besoetan hartuz eta maite-maite




eginez. “Erratza horrexetarako ipini dut atean, zuek ohartzeko”.

“Ai,ai, ai!” Kexu da Tontxu. “ handi bat atera behar zait.

“Tira, tira... Ez da ezer”, esan dio aitak, lasaitu nahian eta kolpeari garrantzia kenduz. “Ez al zaude pozik bihar Arriskuen Gaztelura goazelako?”

“Bai. Gainera denbora gutxi falta da hara joateko”, esan du Tontxuk. “Eskolan nora goazen esan dugu, eta gehienek gurekin etorri nahi zuten. Han ustekabe asko izango dugula esan diegu”.

“Bai, noski!  pasatuko dugu”, esan du aitak, Tontxu alaitu nahian. “Baina orain kolpe hori ur oxigenatuarekin





eta iodoarekin osatu behar dugu. Gero bat ipini eta ohera”.


“Aita, munstroak eta itsaslapurrak daude?”, Tontxuk temati.

“Bai, eta askoz gauza gehiago. Bihar goizean ikusiko dituzu. Orain lotara”.

Ohean sartu ondoren ere, Tontxu egon ezinik dago; munduko erloju guztiak aurreratu nahiko lituzke. Ezin du burutik kendu biharamunekoa, biharamunean Arriskuen Gazteluan izango dituen abenturak.

Azkenean, loak hartu du, eta ametsetan hasi da...

Harrigarria bada ere, Tontxuri iruditu zazio gaztelu
ikaragarri baten aurrean dagoela. Atean herensuge handi
bi daude, sartzeko gonbita eginez.




“Ene bada! <<Arriskuen Gaztelua>> da eta!”



Gizon batek luze bat joz egin dio ongietorria.

“Tururu! Tururu!”

Tontxuk zubi mugikorra zeharkatzeaz bat, gazteluko
jendeak erreberentzia egin dio. “Hau da gauza polita!
Filmetan bakarrik ikusten dira honelako gauzak...”

Konturatu orduko, gazteluko sukaldean sartu da. Han
emakume bi aurkitu ditu patatak zuritzen eta barazkiak
zatitzen.  etatik lurruna ateratzen da; txistuka
ari dira. Tontxuk jakin-min handia du, eta arreta gutxirekin



ibiltzen da. Zer janari prestatzen ari diren jakiteko irrikan dagoenez, estalkia kendu dio lapiko bati.

“Uuuah! A zer mina! Honek erre egiten du!”, esan du kexu.

“Handiagoa gertatu ez denean pozik!”, erantzun dio sukaldari potolo batek. “Lapikoa erori eta bor-bor dagoen ura isuri izan balitz, gu kiskalita honezkero”.

“Barkaidazu”, esan dio Tontxuk damututa.

“Kontuz ez bazabiltza, zuk bakarrik ez, ingurukoek ere mina hartuko dute”, jarraitu du sukaldariak.

Une horretan agure zahar bat agertu da;




luze

eta guzti, aztia ematen du. Kukurutxo erraldoi baten antzeko kapela ere badarama buruan.

“Errearentzako ukendu bat emango dizut”, esan dio agureak Tontxuri. “Mina berehala kendu baietz! Osatu, osatu, mina urrundu”.

Bien bitartean, sukaldaria Tontxuri aholkuak ematen ari da: “Sutan dauden gauzekin kontuz ibili: lapikoak, tresnak, erregailuak... Horiek ere erre egiten dute eta”.


Tontxuk lo jarraitzen du, ametsetan murgilduta, umeez egiten duten bezala.



Jakin-minak bultzatuta, ikusi dituen gortina eta ate guztiak zabaldu ditu. Baina gauza guztien artean  bat iruditu zaió deigarriena.





“Kontuz! Ez ireki!”, ohartarazi dio aztiak. “Kutxa hori gauza arriskutsuen kutxa da”.

“Zeer?”, galdetu du Tontxuk kutxa ireki ondoren.


“Laranja koloreko laukitxo hori eta  bat duten ontziak eta botilak arriskutsuak dira. Horiekin pozoitu egin zaitezke. Joan komunera eta garbitu eskuak”.


Tontxuk esana egin du. Baina komunetik irten baino lehen, argia itzaltzeko etengailua esku bustiarekin ukitu duenean, zartzada eder bat sentitu du. “Aaaaai!”. Konturatu gabe etengailua  ukitu du, eta hori egiten den bakoitzean  rak ikusten dira.




“Eskuak bustita ditugunean, ez dugu tresna elektrikorik ukitu behar”, aholkatu dio aztiak. “Eta kableak eta entxufeak ez sekula ukitu”.

Gazteluko arriskuak eta entzundako aholkuak ezagunak iruditzen zaizkio. Tontxu duda-mudatan dago. Aurretik ere noizbait gazteluan egon ote den susmoa du.



Arrebari galdetzea erabaki du. Bira egin du ohean Kontxiri begira jartzeko, baina hain dago nekatuta ze,  a besarkatu eta lo jarraitu du. Bihar segur aski kontu handiagoarekin ibiliko da.





EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, MERKATARITZA
ETA TURISMO SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
COMERCIO Y TURISMO

